



# Gazteak Auzolanean 2024: komunitatearen aldeko proiektuentzako dirulaguntza.

**Laguntzeko egitasmoak:** xedea da Gipuzkoako gazteei taldeko irabazi asmorik gabeko proiektuak garatzeko laguntza ematea, beren ingurunea inplikaturik eta interes publikoa duten gizartearen eraldaketa prozesuak laguntzea helburu izanik.

**Laguntzen zenbatekoa:** 25.000 €.

Proiektu batek gehienenez 5.000 € eta gutxienez 1.500 €.

**Aurkezteko epealdia:** 2024ko urriaren 25 arte.

**Garatzeko aldia:** 2025ko ekainaren 30 arte.

**Hartzaileak:** gutxienez 3 kidek osatutako taldeak, (18-30 urte). Enpresa edo elkarte bezala eratuta egon ez eta proiektu edo ideia bat garatzeko proposatzen dutenak. Baldin eta proiektuak Gipuzkoa osorako edo bertako lurralde baterako gizarte edo/eta kultur interesa badu. Taldeko eragileen bi herenek gutxienez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrri batean administrazio auzoa izango dute.

## Helburuak

- Gazteen talde ekimenak bultzatzea.
- Giza garapena eta komunitatearena sustatzea.
- Pertsona gazteen ahalduntzea sustatzea.
- Gipuzkoako gizarte bizitza, ekonomikoa eta kulturala aberastea.
- Gazteria, gizarteak aintzat hartzea ahalbidetu, bere sormen, berrikuntza eta eraldatze gaitasuna onartuz.
- Etorkizuneko gizarte ekintzaileentzako prozesuetan, ikaskuntza lortzeko baliogarri izan daitezkeen esperientziak erraztu.

## Jarduera esparruak eta proiektu motak

- Proiektu artistikoak edo/eta kultural komunitarioak.
- Ingurunearen zaintza eta jasangarritasuna oinarri duten proiektuak.
- Genero berdintasuna, euskara, kulturartekotasuna, elkartasuna eta beste alorretan oinarritutako gizarte edo komunitatearen eraberritze proiektuak.
- Alor hauez gain, interesgarriak diren beste esparru batzuetan oinarritutako proiektuak aintzat hartu ahal izango dira.



### **Aurkeztu behar dena**

- Proiektua: gutxienez biltzen dituen xedeak, justifikazioa, baliabide materialak, kronograma, gauzatzeko lekua eta ebaluazio sistema bat.
- Aurrekontua.
- Taldekide guztien NANaren fotokopia.
- Taldekide guztien administrazio auzotasunaren egiaztagiria ala erakundeak baieztatzeko baimena emateko.
- Taldekide guztiek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duten agiriak edo erakundeak baieztatzeko baimena emateko.

### **Diruz lagundu daitezkeen gastuak**

- Materialak, ekipamenduak edo proiektua garatzeko beharrezko azpiegitura erosi edo alokatzera (inbentaria ezina).
- Bestek ematen dituzten zerbitzu profesionalak ordaintzera, betiere jarduera garatzeko zurrunki beharrezkoak badira.
- Jarduerak burutzeak eragiten dituen gastuak.
- Diru laguntza ezin izango da bideratu talde sustatzailea osatzen duten pertsonen ordaintzera.

### **Idea garatzeko, info gehiago edo eskaera betetzeko beharra izanik:**

900 110 111 / 943 47 25 80

WhatsApp: 620 27 80 70

[uimaz@gipuzkoa.eus](mailto:uimaz@gipuzkoa.eus)

Gaztegunea. Anoeta pasealekua 28. Donostia (Izotz Jauregi ondoan)

**Informazio osoa** <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gazteria/gazteak-auzolanean>